

Euskara sustatzeko elkarlana eskatu dio Jaurlaritzak Sanzen gobernuari

Hizkuntz politikak koordinatzeko organo komun iraunkorra sortzea proposatu du Baztarrikak

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA
Bilbo

Euskara sustatzeko organo komun iraunkorra sortzeko proposatu dio Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuari. Organo horrek bi erakundeen hizkuntza politikak koordinatzeko balioko du, «errespetu instituzional erabatekoan eta egitura juridiko-administratiboen errespetuan oinarrituta». Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak atzo agertu zuenez, «organo komun iraunkor horrekin euskara eta herriarren arteko bizikidetzak bakarrik aterako litzateke irabazle».

Gogoratu zuenez, orain bi urte eta erdi kargua hartu zuenean beste erakunde batera egin zuen lehenengo deia Nafarroako Gobernura egin zuen. Euskara sustatzeko elkarlan proposamenekin joan zen orduan, baina ez zuen nahi zituen emaitzak lortu. Orain, berriro ahalginduko da, eta orduan baino itxaropen handiagoak ditu.

Baztarrikak itxaropentsu hartu zituen Euskararen Institutua sortzeko Nafarroako Gobernuako arduradunek egindako adierazpenak. «Goizegi da Euskararen Institutuaz balorazioa egiteko, sortu gabe dagoelako oraindik. Baina Nafarroako Gobernuako ordezkariak egindako adierazpenek euskararekiko jarrera aldatuta bat erakusten dute». Hain zuzen, Eus-

kararen Institutuko zuzendari berria «izendatu bezain laster» hari emango dio elkarlanerako eta organo komun iraunkorra sortzeko proposamena.

Hizkuntzen Eskualdea edo Hizkuntza Txikien Europako Ituna aztertzeke Madrilén egiten ari diren Europako Kontseilura eramango duen euskararen egoeraren inguruko txostena aurkeztekoan egin zituen adierazpenok

Baztarrikak. Espainiako Estatuak 1992. urtean sinatu zuen Europako Ituna, eta 2001. urtean berretsi; orduz geroztik, derrigorrez bete behar du bertan jasotzen dena. 2005. urtean, Europako Gutuna betetzen denaren inguruko lehen azterketa egin zuen Europako Kontseiluak, eta hainbat gomendio egin zizkien Espainiako Estatuako administrazio publikoei. Atzo, bi urte hauetan egindakoa eta euska-

raren egoeraren inguruan duten iritzia azaldu zuten Jaurlaritzako ordezkariak.

2005. urtean, hiru gomendio eman zizkien Europako Kontseiluak Jaurlaritzari: hedabide elektroniko pribatuetan euskararen erabilera gehitzea, bigarren hizkuntzan eta lanbide heziketan euskarazko irakaskuntza gehitzea eta justizia administrazioako pertsonala euskalduntzea.

ESPAINIA ETA EUROITUNA. Lehen bi gomendioak bete dituztela argitu zuen Baztarrikak, baina ez hirugarrena. Dena den, justizia administrazioa eskumenak Espainiako Gobernuaren esku daudela zehaztu zuen. Lagundu guran, epaileei, fiskalei eta idazkariei euskara eskolak emateko, Justizia Ministerioarekin eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzaz hitzarmenak sinatu dituztela esan zuen.

Jaurlaritzak egindako ahaletik ez du Espainiako Gobernuaren aldetik ikusten Baztarrikak. «Espainiako Estatuako administrazioa eta erakunde publikoak urrun daude Europako Hizkuntzen Gutunean jasotakoa betetzetik».



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrika, eta Nafarroako Hezkuntza sailburua Carlos Perez Nieves. M. DEL VALLE - J. MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Proposamena egiteko modua gaitzetsi du Perez Nievasek

Haserre agertu da kontseilaria elkarlanerako proposamenaren berri hedabideetan jakin duelako

EDURNE ELIZONDO
Iruñea

Onartezina. Halakotzat jotzen du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Carlos Perez Nievasek Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak atzo egin zuen agerraldia. Bi kontuk piztu dute Perez Nievasek haserre: batetik, Europako Kontseiluko adituentzat Eusko Jaurlaritzak prestatu duen txostenak Nafarroa eta bertako

egoera aipatu izanak; eta, bestetik, Baztarrikak euskara sustatzeko organo komun iraunkorra sortzeko proposamena egin izanak.

Eusko Jaurlaritzaren txostenari buruz, zuzentzeko eskatu dio Nafarroako Hezkuntza kontseilariak Jaurlaritzako Kultura Sailari, «onartezina delako». «Eusko Jaurlaritzari ez dagokio, inondik inora, Nafarroari buruzko balorazioak egitea, ez euskarari buruz, ezta beste inolako gairi buruz ere», azpimarratu du kontseilariak. «Guk badakigu gure hizkuntza defendatzen, eta Eusko Jaurlaritzak ez digu zertan deus aurpegiratu, are gutxiago jendaurrean», gaineratu du.

Gaur Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko hain-

bat kide izanen dira Madrilén, Perez Nievasek ezagutarazi duenez, Europako Kontseiluko ordezkariak bilera egiteko.

IZEN OKERRA. Baztarrikaren elkarlanerako proposamena, halaber, gaizki hartu du Nafarroako Gobernuak.

«Guk badakigu gure hizkuntza defendatzen, eta Eusko Jaurlaritzak ez digu deus aurpegiratu behar»

«Ez digu elkarlanerako aterik itxi, baina halako proposamena hedabideen bidez egitea ez da zuzena»

CARLOS PEREZ NIEVAS
NAFARROAKO HEZKUNTZA KONTSEILARIA

nuak. Proposamen hori egiteko moduak piztu du, batez ere, Hezkuntza Departamentuko ardura-dunen haserre, Perez Nievasek nabarmendu duenez. «Inoiz ez dugu elkarlanerako aterik itxi, baina halako proposamen bat hedabideen bidez egitea ez da batere zuzena. Ezin dugu halakorik onartu».

«Eusko Jaurlaritzatik ez didate deus erran; inor ez da nirekin harremanetan jarri elkarlanean aitzeko aukeraz mintzatzeko», erran du kontseilariak.

Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlana koordinatzeko Baztarrikak proposatu duen erakundearen izenarekin, halaber, ez da batere ados agertu Perez Nievasek. «Izen

hori aukeratu duenak ez daki deus politikaren inguruan; hori, edo probokazio hutsa izan da». Hezkuntza Departamentuko buruak zalantzan jarri du izena borondate onez aukeratu ote duten.

Eusko Jaurlaritzak erran duena zuzendu behar duela berretsi du Perez Nievasek. «Nafarroako Gobernua euskara despolitizatzeke urratsak egiten hasi da. Une zaila da oraingoa: batetik, Nafarroako Institutuarentzat zuzendaria bilatzen ari garelako oraindik, eta, bestetik, kritikak jaso ditugulako hainbat esparrutik euskarari gehiegizko protagonismoa eman diogulako; egoera horretan dator-kigu Eusko Jaurlaritzak bere opari pozoituarekin; ez da elkarlana hasteko egoera egokia».